



TXOMIN ENEAKO ALOKAIUKO ETXEBIZITZAK ETA DONOSTIAKO ETXEGINTZAREN ETXEBIZITZA ETA ZUZKIDURA-BIZITOKI HUTSAK ESLEITZEKO DEIALDIA

2019ko maiatzaren 3an, Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintzaren Administrazio Kontseiluak erabaki zuen onartzea "Etxegintzaren alokairuko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak baremazio bidez esleitzeko prozeduraren Oinarriak".

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 115. zenbakian, 2019ko ekainaren 19an.

Gaur egun, Txomin Eneako sustapenaren araubide orokorreko babes ofizialeko alokairuko etxebizitzak esleitzeko moduan daude; beraz, beharrezkoa da etxebizitza horiek esleitzeko deialdia egitea, aipatutako prozedura-oinarrien arabera, eta itxarote-zerrenda bat ezartzea, bai aipatutako sustapenean hutsik geratzen diren etxebizitzetarako, bai Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintzaren parkean etxebizitzetarako eta zuzkidura-bizitokietarako.

Aurreko guztia ikusita, Txomin Eneako alokairuko etxebizitzak eta erakunde honetan hutsik dauden etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko deialdia egiten da, xedapen hauetan:

1. Xedea

Txomin Eneako alokairuko 162 etxebizitzak esleitzea eta itxarote-zerrenda bat egitea, bai aipatutako sustapenean hutsik geratzen diren etxebizitzetarako, bai Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintzaren etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak erabakiarako.

2. Parte-hartzaileak

Prozeduran parte hartzaileak joko dira inskribatzeko epea amaitu baino lehen esleipen-prozeduran parte hartzeko eskaera modu frogagarrian eta espresuan egiten duten pertsonak, bai Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintzak duen Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroan izena eman dutenek, baita orain arte izena ez dutenek ere.

Izapide hori ondoren zehazten den epean egiten ez duten pertsonak, nahiz eta aipatutako Erregistroan inskribatuta egon, ezingo dute parte hartu esleipen-prozeduran.

3. Izena emateko epea

Izena emateko epea 2019ko abenduaren 10ean ireki eta 2020ko urtarrilaren 10ean amaituko da.

4. Inskripzioa egiteko modua

Interesdunek modu telematikoan egin ahal izango dute eskabidea Donostiako Udalaren webgunean edo erakunde horren bulegoan (San Martzial kalea 2, behea, Donostia).

Eskatzaileen Udal Erregistroan izena emanda dauden pertsonak Donostiako Etxegintza bidaliko die, posta elektronikoz edo telefonoz, identifikatzaile bat izapidea errazteko.

5. Betekizunak, baldintzak eta prozedura

Betekizunak, parte hartzeko baldintzak eta esleipen-prozedura "Etxegintzako alokairuko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak baremazio bidez esleitzeko prozeduraren Oinarriak" izenekoan ezarritakoak izango dira. Oinarri horiek Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintzaren Administrazio Kontseiluak onartu zituen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (115. zk., 2019ko ekainaren 19koa).

6. Egiaztatze agiriak




▶ Etxegintza
Vivienda

Eskatzaileek berriazko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko dute betekizunak eta gainerako inguruabarrak betetzen dituztela. Adierazpen hori bitarte elektronikoen bidez egin ahal izango da.

Esandako aitortpena izango da eskabideak onartzeko epean eskatuko den dokumentazio bakarra, baina ez du salbuetsiko etxebizitzak esleitzeko unean alegatutako egoerak agiri bidez egiaztatzeko betebeharretik; beraz, justifikatuta ez dagoenak berekin ekarriko du dagozkion puntuak baremotik kentzea, daitezkeen erantzukizunak alde batera utzirik.

Donostia, 2019ko abenduaren 1ean,

DONOSTIAKO ETXEGINTZAREN PRESIDENTEA


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Izpta. Eneko Goia Laso